

Eguneroko sentsazioei, sentimenduei, egoerei, nostalgiari... helduta, Xabier Aramendik bere lehen liburua argitaratu du Erein argitaletxea-

rekin. «Umorearen eta jokoaren zipriztinak nonahi» dituzten poemak osatu ditu, simetriari eta formari zorrotz helduta.

«Verba polita» poesia liburua aurkeztu du Xabier Aramendik

Maider EIZMENDI | DONOSTIA

Umorearen zipriztinez bustita eta simetria eta formari zorrotasunez eutsita, Xabier Aramendik «Verba polita» lehen poesia liburua aurkeztu zuen atzo Donostian. Erein argitaletxeak kaleratu duen liburuaren lehen orrietan aipatu du Aramendik Victor Hugo idazleak Pasaia inguruetan egon ostean esandakoa: «Pasaian lan, dantza eta kanta egiten dela esaten

zuen». Aipua argitara eman duen lana ondo laburbiltzen duela iritzi zion: «Liburuan, badira joko hutsak diren poesiak, ateraldiak, burutzioak... dantza; badira tonu alaia edo umoretsua dutenak... kanta; eta badira tonu serioa dutenak... lana», aipatu zuen.

Liburua ez du gai bakarraren bueltan osatu. «Eguneroko sentsazioak, sentimenduak, pentsamenduak, egoerak, idazkerari berari buruzko hausnar-

LEHENA


Idatzi ugari, lan solteak argitaratu izan ditu hainbat herri eta literatur aldizkarian. Hau da argitara eman duen lehen liburua.

ketak, nostalgia, denboraren iragatea, porrota...» dira jorratu dituen gaiak.

«Ideiak eta sentimenduak modu zuzenean» adierazita, Aramendi bertso librean aritu da nagusiki, «baina erritmoaren eta musikaltasunaren» indarra mantenduta: «Aukera bat da hau, nire proposamena. Egin daiteke, izan ere, bertso libre ona erritmorik eta musikarik gabe; eta poesia txarra erritmoarekin eta musikarekin», argitu nahi izan zuen idazleak.

«Haurtzarokoak», «Nerabezarokoak», «Oraingokoak» eta «Zahartzarokoak» ataletan sailkatu ditu poemak, bere lanen antologia balitz bezala. Aitzakia literario honi esker, ataletako bakoitzean, gai eta aritzeko modu desberdinak baliatu ditu. Hala «tonua joko hutsetik, umoretik, seriotasunera doa», baina «umorearen eta jokoaren zipriztinak nonahi» daudela ohartarazi zuen.

Izenburuaren nondik norakoak ere argitu zituen Aramendik: «Bizkaierako hitzak dira, ortografia okerrarekin. Latina da, hitz joko bat, erretorika zaharrean erabiltzen zen terminoa hitzen formei errepara behar zaiela adierazteko». Izenburuaren itzulpen literarioa «hitz leunduak» izango litzake, eta, hain zuzen ere, horixe da idazlearen egitekoa bere ustez: «hitzak leundu, aukeratu, bilatu, egokitu...»



Xabier Aramendik, bere liburua eskuan hartuta. Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS

El novelista británico Julian Barnes recibirá esta tarde el Premio BBK La Risa del Bilbao

GARA | BILBO

Después de Tom Sharpe, Francisco Ibáñez, Ismael Kadaré y Robert Crumb, el Premio BBK La Risa de Bilbao 2014 será para el escritor británico Julian Barnes. La crítica internacional más exigente y las legiones de admiradores con los que Barnes cuenta en todo el mundo destacan en su obra literaria la inteligencia y el sentido del humor. Dijo en una ocasión que «uno no puede escapar de sus huellas dactilares», y, para su editor Jorge Herralde (Anagrama), el hu-

mor está presente en cada una de las huellas dactilares de Julian Barnes.

Antes de recoger el Premio (20.30h, Sala BBK), Julian Barnes será entrevistado por la escritora Nuria Barrios ante el público. El novelista es sin duda uno de los mejores narradores actuales en lengua inglesa. Ha recibido algunos de los galardones literarios más prestigiosos y es Chevalier de l'Ordre des Arts et des Lettres. Es autor de novelas como «El loro de Flaubert», «Hablando del asunto» o «Arthur & George».



Exposición del festival de literatura de humor de Bilbao. Marisol RAMÍREZ | A.PRESS

Quo vadis (I)



Estibalitz EZKERRA
Literatur kritikaria

Pedroren ekin-tzak" testu apokrifotetan azaltzen denez, Erromatik ihesi zihola Jesu Kristo agertu omen zitzaion Pedrori. «Domine, quo vadis?» (jauna, nora zoaz?), galdetu zion Pedrok eta Jesu Kristok erantzun, «Eo Romam iterum crucifigi» (Erromara nora berriro gurutziltzatua izateko) eta Pedrok ondorioztatu zuen Erromara itzultzea zegokiola Jainkoak berarentzat aukeratu zuen martirioa jasotzeko. Barroko garaiko Annibale Carracci italiar margolariak koadro bat osatu zuen gai horren inguruan, non Jesu Kristo agertzen den, gurutzea sorbaldan eta ezkerreko eskuarekin aurrera seinalatuz, ondoan duen Pedrori Erromarako bidea erakutsi nahian.

Pedrok ezkerreko belaua tolestuta dauka eta eskumako oinarekin atzera egiten du; eskuak, berriz, jasota dauzka biak. Pedroren eta Jesu Kristoren arteko solasaldia nola ulertzen dugun, horren arabera erabakiko dugu lehenengoaren gorputz jarrera beldurrezkoa ala ustekabearena ote den, agian biak aldi berean. Pertsona erlijio-tsua ez naizen aldetik, kostea egiten zait onartzea norberak aukeraturakoa ez den heriotzaren ideia eta hortik belduraren hipotesia ulergarriago gitea. Izan ere, Jesu Kristok ez du bakarrik Pedrok hil behar duela erabaki; haren hiltzeko modua ere zehaztuta dauka. Zentzu horretan, «quo vadis?» galdera ironikoa egiten zait Jesu Kristori baino gehiago Pedrori egin beharreko galdera baita. Akaso horretan dago koska, erabakian ezinezkotasuna (aldez aurretik erabakita dauka Jesu Kristok Pedroren martirioa) agerian uzteko asmo beste norbaiti egindako galdera moduan agertu behar dela, erabakiaren beraren aukera posible izan dadin.